

ELKARTE-LAGUNTZAREN ERROTIKO ALDAKETAK

Elkarte-laguntzaren eskaintzen duen ikusmira ez da bat ere atsegina. Ematen diren aurrerapausoak motelak eta desorekatuak dira eta eragozpen asko gainditu behar da bidean gauzek aurrera egin dezaten. Hala eta guzti ere, paisaia ez da erabat ilundua agertzen, eta sistema gorabehera, elkarte-zainketa batek baino gehiagok funtzionamendu egokia ageri du. Askok uste dute finantz zailtasunak eta administrazioaren mataza gorabera, elkarte-laguntza dela beza-roengana iristeko modurik egokiena. Baina gauza bat dago argi eta garbi: orain arte dauden baliabideen erabilera ongi egitea baino zerbait gehiago beharko dela Ingalaterra eta Galesko elkarte-laguntza behar bezala jartzeko, eta Audit Batzordearen arabera, errotiko aldaketak behar dira honako arrazoi hauengatik:

1. Elkarte-laguntzan oinarituriko zenbait udal-programen arrakastak erakusten du milioika pertsonen mesede egiteko aproposak direla.
2. Baina Zenbait udal-programak arrakasta izan baino dauden arauak ezizuki egin eta jarduera radikalekara joan da.
3. Itxuraz erakargarriak diren zenbait aukera estrategikok ez dute izan ebaluaketa zehatzik.

Ondoren puntu hauek sakontzen ahalginduko gara eta arraskata izan duten programetatik zer ikas daitekeen aztertuko dugu.

Elkarte-laguntzaren onurak

Diru-balorioaren arazoak alde batera utzirik, adineko ahul, gaixo mental, minus-

balioa fisikoa eta mentala dutenentzat elkarte-laguntzak egiten duen mesedea izugarria da. Une honetan egoitzatan dauden 350.000 pertsonari bizi-kalitatea hobetu ez ezik, garrantzi handiko laguntza eman ahal izango litzaieke beren ahaideak sorosten ari diren milioika pertsonari, izan ere une honetan jasaten ari diren zama ikaragarria baita. Helburu hau lortzeko modukoa dela praktikak erakusten duen zerbait da.

Minusbalidun Mentalentzako Zerbitzuak

Plymouthen eskualdeak ez zeukan minusbalio mental handikoentzako ospitalerik eta hori zela-eta 144 pertsona zeuden Exeterreko Osasun-Zaindaritzapean dagoen Starcross Ospitalean. Planaren arabera pertsona hauek ospitaletik atera eta 30 etxetan jarriko dira, bertako pertsonal-plantila baten laguntzarekin. Banaka batzuk, gaitasun handiagoa dutenak, plantila-laguntzarik gabeko etxeetan jarriko dira bizitzen. Gainera 20 ohetako *tratamendu-unitate* bat ere izango da laguntza errebortatzeko eta egotaldi laburretako gizarte-zerbitzuetarako 24 ohe ere izango dira. Gainera, programak baditu proposamen batzuk eguneko zainketen razionalizazio eta hedapenerako.

Nazio-Osasun Zerbitzuan eta gizarte-zerbitzuei guztira 3 milioi libra kostatzen zitzairen (1984eko Maiatzeko preziotan) eta horrezaz gainera Onura Osagarrietarako bazegoen beste 600.000 libratako kostu gehigarri bat ere Zerbitzuaren kostu guztia aurretik zegoen ospitale-zerbitzuarenaren parekoa da. Bestalde, laguntzak izugarri gehitu da elkartearen onetan 1971ko "White Paper" delakoak aurrirakuen zuenaren aldean

eta minusbalia mentala dutenen aldeko udal-aurrekontua % 66 hazi da.

Plymoutheko ereduak ez da bakarra; beste bi tokitan ere badira antzeko esperientziak.

Gaixo Mentalentzako Zerbitzuak

Torbayn gaixo mentalentzako plan bateratu bat sortu da. Hemen, elkarteko osasun mentaleko zerbitzuen inguruan eraiki da zerbitzua, berau delarik osasun mentaleko profesional-ekipo baten base eta eskualdeko osasun mentaleko zerbitzuen erdigune eta biltoki. Torbayk 225.000 pertsonari ematen die zerbitzua eta honelakoa da zerbitzuen banaketa: 25 etxe arrunt etxerako eta eguneko zerbitzua hornituz, 4 talde- etxe MINDek zuzenduak, etxebizitza normalak etxeokandreen gidaritzapean, 3 edo 4 etxe asistentia eta etxerako zerbitzuen laguntzarekin, 4 etxe lauzpabosna pertsonarentzat egoitzazko pertsonalaren laguntzarekin, egoitzetxeak batez ere adinekoentzat, 3 aterpetxe eta ospitalean 60 ohe (epe-laburrerakoak).

Zerbitzuen kostuen analisiak agerian jartzen du berau finantz hornikuntza arrunten barruan jasateko modukoa dela. Beste behin laguntzaren orekak izugarriko aldaketa egin du elkartearen alde 1975eko "White Paper" delakoan aurrikusten zenaren aldean; ospitale-planteamendua eta elkarte-planteamendua konparatuz gero, udal-laguntza % 44ean hazi da azken plan honen alde.

Plana udal-mailan burutzen da partaideen arteko lotura estuari esker behetik gora egindako plan bat denez gero, pertsonala oso lotua sentitzen da berarekin, eta gainera profesionalen demarkazio eta zatikatzeari erremedioa jarri zaio. Bestalde, eki-poak gizarte-langilez, medikuz, erizain, psikologoz eta abarrez eratuak badira ere, funtsean garrantzizkoagoa da "osasun mentaleko profesional" izatea bakoitzaren berezitasun profesionalak baino.

Adinekoentzako Zerbitzuak

Hastingsen mentalki ondoezik zeuden adinekoentzako zerbitzuak hobetzeko ekimenak East Sussexeko Gizarte-Zerbitzuen Departamendutik sortu ziren. Bi egoitza zeuden instalazio-soberakinekin, haietako bat desegokia bazen ere. Ikerketa batek jakinerazi zuen ospitale bateko iraupen luzeko oheak ez zirela asegarriak eta garestiak zire-

la gainera. Orduan udal-osasungintzak eta gizarte-zerbitzuek ospitaleko ohezerbitzua ixtea oinarritzat harturik plan berri bat taiutu zuen. Egoitzarik berriena birmoldatua izan zen mentalki ondoezik zeuden adinekoentzat zerbitzu egokiak eman ahal izateko: instalazio mailakatuak, eguneko postuak, ospitaletik fondoak aldatzeak garapen berria ordaintzeko eta abar.

Plymouth eta Torbayn bezala, hemen ere ptangintza aurrena udalmailakoa izan zen eta honela udaleko talde profesional ezberdinak sarrerazten dira planean. Plana piskanakako prozesu batean burutzen da eta aurreztutako diruaz ekimen berriak finantzatzen dira "erreakziokatea" gisako bat gertatzen delarik. Ekimen hauek ekintzan jartzea udal mailako pertsonalari eman zaion autonomia handiari eta liberatu diren fondoak birtziklatu ahal izateari zor zaie.

Hillingdonen beste era batera mamitu da plana. Adinekoentzako etxe eta gizarte-zerbitzuen azterketa zabal egin du Mankomunitateak bertako Osasun-Agintariekin batera. Hemen erabili den sistema "*laguntza-oreka*" dei liteke eta bertako Osasun eta gizarte-zerbitzuek diseinatua da eta ondoren udal ezberdinetara hedatu. Profesional talde batek, azterketaren arabera, dauden laguntza-hartzaileen balorazio bat egin dute eta berauentzako zerbitzurik eraginkorrenak zeintzuk diren erabaki du. Hemendik sortu den eredu teorikoa eta lehen zeukaten konparatu dira eta laster ikusi da adineko askok orain arte hartzen ez dituzten bezalako zerbitzuak behar dituztela, eta aldiz, adineko batzuek behar ez dituzten zerbitzuak ere hartzen dituztela. Esaterako, ospitaleko oheak sarritan tratamendurik behar ez zuten pertsonaz beteak zeuden, eta aldi berean beste pertsona batzuek ez zuten oherik, nahiz eta premia izan. Gainera, sarritan adinekoentzako etxeak elkartean eta askoz hobeki bizi izateko moduko pertsonenez beteak zeuden, baldin eta laguntza egokia ematen bazitzairen. Etxerako zerbitzuek ere ez zieten premiei behar bezala erantzuten.

Beraz, azterketaren ondoren, aurkitu ziren hutsune hauei soluzioa emateko neurriak hartu dira eta ondoren sortu den zerbitzu mistozko sistemak hobeki erantzuten die pertsonen premiei.

Minusbalio Fisikoa duten Gazteentzako zerbitzuak

VViganen Egun-Zerbitzu Lautarikorako Zentruak laguntza disziplinagintza eskaintzen

du minusbaliodun gazteentzat eskola utzi osteko urteetan, garai hau kritikoa gertatzen baitzaie. Bertan Udalak, Osasun eta Hezkuntza-Sailek parte hartzen dute Enplegu-Zerbitzuarekin ere loturak izaki. Zentruaren helburua gizabanakoaren potentziala etorkizunean burujabe bizi izateko lantzea da bizitzan, lanean eta aurrerantzeko hezkuntzan edo lan-trebakuntzan eta elkarteak baliapideak bilatzea gaztejende honek unitatean bi urtez (gehienera) dagoela lortu duen funtzionamendu-mailari eutsi diezaion.

EGINTZA RADIKALAREN PREMIA

Gorago deskribaturiko eskemek elkarte-zainketaren zertzelada ezberdinak erakusten dizkigu... Izan ere, gaur egunean ekimengaritasun eta askotarikotasuna dira gertatzen ari denaren ezaugarri nagusienetako batzuk. Baina gauza bat dago argi eta garbi, zeinek bere erara, arrakasta izan duten plan guztiek normalean gauzak egiteko izan diren moduetatik radikalki aldentzea suposatzen izan dute. Labur esateko ezaugarri hauek izan dituzte plan guztiek:

1. Aldaketaren alde saiatzeko konpromisu sendoko pertsonak izatea.
2. Egintza azpimarratzea eta ez maineria burokratikoak.
3. Udal-mailan integraturiko zerbitzuak eskaintzea.
4. Auzategi-mailari garrantzia ematea.
5. Ekipoan lan egitea.
6. Erakunde-zerbitzuen eta borondatezko antolamenduen arteko partaidetza.

KONTUTAN HARTU BEHARREKO AUKE-RA ESTRATEGIKOAK

Aipatu ditugun aldaketa radikalek herri-mailan integraturiko elkarte-zainketak lortzeko moduko ingurugiroa sortu behar dute. Gaur egun dauden erakunde-markoak traba egiten die beharrezkoak diren aldaketa hauei... Fokua zerbitzuetan dago, ez bezeroengan: bezero berarentzako zerbitzu ezberdinei buruzko erabakiak agentzia ezberdinetan hartzen dira eta hierarkia profesional ezberdinetan gora bultzatu behar izaten dira. Plangintza erdiratuko antolamenduek ez dute uzten zenbait agentzian behar adinako malgutasunik ihardun ala izateko.

Kudeakuntza-fokuak herri-mailako eragiketan egon beharko luke eta ez orain bezala antolamendu zentrolean eta baterako plangintzaren makinerian.

Finantzaketak arazo funtsezkoagoa planteiatzen du. Erantzukizun finantzarioak berrotlatzeak elkarte-zainketarako lan-markoa berregokitzea eskatzen du. Agentzien arteko harremanen azterketan ikusi denez zeinek bere diru-fondoak dituela funtzionatzen duten zerbitzuek erantzun desegokiagoak ematen dituzte eta zerbitzu horiek eskaintzeko era razionalagoa litzateke agentzia bakarrak erantzukizun nagusia bere baitan hartzea eta aldi berean aurrekontua eta kontabilitatea ere bere baitan izatea, behar diren zerbitzuak beste agentzietatik erosi ahal izateko. Ez da ahaztu behar zerbitzu-homikuntza zainketa-prozesuaren parteetako bat besterik ez dela. Zainketa bat behar duen norbaiten jazoera-sekuentzia honako hau da:

Txostena... Balorazioa... Preskripzioa... Zerbitzu-hornikuntza... Gainbegiraketa eta ebaluaketa.

Praktikan zerbitzu-hornikuntzaren zenbait elementu beste agentzia batzuetatik eskuratze da azpikontratazioaren bitartez: zainketaren ardura izateak ez du esan nahi derrigorrean zerbitzua etxe-barruan eskuratu behar denik. Baina orain arteko antolamenduan nabaria da subkontratazio gutxi egiten dela zerbitzu-hornikuntzari dagokionez. Eta beste agentzia batzuek zerbitzu-hornikuntza burutzen dutenean ere ez da kontratu-harremanik izaten zainketaren ardura duen agentziaren eta agentzia zerbitzu-hornitzailearen artean.

Beraz, aukera estrategiko sail bat dago elkarte-zainketa antolatu eta finantzatzeko eta ondoren adierazten diren ahuek arretaz aztertzeak direla uste dugu:

1. Udal-mailako agintariak beren gain izan beharko lukete epe luzerako erantzukizuna elkarteko minusbalia dun mental eta fisikoei dagokienez; oso ezinduen kasuak salbu, izan ere hauek mediku-gainbegiraketa eta beharrezko baliapideak Osasun-Zerbitzu Nazionaletik hartu beharko bait lukete.
2. Elkarteko adinekoen zainketarako aurrekontu bakarra ezarri beharko litzateke eremu bakoitzean OZNa ren eta udal-agintarien ekarpenekin, zenbatekoa kasu bakoitzean akordioz erabaki beharko litzatekeelarik.

Aurrekontua kudeatzaile bakarraren eskutan egongo litzateke eta beronek erosiko lituzke agentzia publiko zein pribatuetatik adinekoentzat egoitizat jotzen diren zerbitzuak bere ardurapean dituen elkarteko eremuetarako. Kudeatzailearen iharduera udal-agintarien eta OZNaren baterako zuzendaritza batek gainbegiratu luke.

3. Elkarteko gaixo mentalei dagokienez, OZN izango litzateke arduradun nagusia, baina honetan ere gizarte-zerbitzuek zeregin garrantzitsua dute. Bi aukera balioztatu beharko lirateke:

— OZNari erantzukizun osoa eman, baina udal-agintariengandiko zerbitzuak behar dituzenean, berauek izan behar dute kontratatzaileak erosteko orduan.

— Adinekoentzat proposatu dena bezalako antolamendu bat.

Dagoeneko eman dira zenbait pausu, 1984etik hasita agintzaritza zentral eta lokal mailan lantaldeak eratuz egoitzetako zainketa dela-eta arazo hauek aztertzeke. Azterketa piloak egin dira agintaritza lokalaren mailan dauden balorazio-antolamendu disiplinantzak egoitzetan laguntza eskatzen dutenei zer nola egokituko zaizkien ikusteko.

Baina hau ez da aski eta aldi berean elkarte-zainketaren lan-markoaren barruan ere antolamendu-aldaketak burutu beharko dira. 2000 Egitasmoan proposatzen denez elkartean lanean ari diren guztien prestakuntza-plan bat burutu beharko da eta oinarritzko trebakuntzaren bitartez "elkartzainketako langile" oinarritzko-kualifikazioa hartuko lukete jeneralista bezala ihardun ahal izateko. Oinarritzko trebakuntza hau onartu egin beharko lukete gorputz profesional ezberdinek. Gero beste maila bateko kualifikazioetara jo beharko litzateke (terapia okupazional, osasun mental, gizarte-lan eta abarretan). Era honetako trebaketa hasiera batean izan gabe pertsonaren bizialdi osoan zehar lortuko litzatekeena izango da.

Bestalde, ahalbide hauen eta beste batzuen azterketa sakona ere beharrezko ikusten da. Aukera estrategiko ezberdinen ebaluaketa burutzeko, funtsezkoa izango dela honako hauek burutzea:

- a) OZNetik agintaritza lokaletara egitenden baliapideen transferentzia

ahalik eta bizkorren nola egin litekeen aztertu, horetarako bezero-talde bereziekiko erantzukizunari begiratu.

- b) Agintari lokalei iharduteko dituzten eragozpen finantzarioak kendu beren papera elkarte-zainketan joka dezaten.
- c) Bezero-atalde ezberdinen eta gune geografiko ezberdinen arteko oreka lortzen saiatu.
- d) Bitarteko finantzario egokia bilatu behar bezalako zubia burutu ahal izateko egoitzatik elkarte-zainketarako aldeketan.
- e) Ikusi ea nola koordina daitezkeen elkarte-zainketako politika osagarrizko laguntzarako antolamenduena, politika-gatazkak baztertzeko.
- f) Paziante indibidualei leku egokian eta kostu egokian behar duten zainketa eskuratzeko sistema bilatu.
- g) Eskulanaren trebaketa planifikatze ko mekanismo koordinatzaileak aurkitu, jende-talde handiak rolik gabe edo rol berrietarako behar adinako trebaketarik gabe gera ez daitezzen.
- h) Adi egon kostu eraginkorren barruan lan egiten duten gorondatezko antolamenduak fondo-gabeziak estuazuzan aurki ez daitezzen.

Gauza bat dago argi guzti honetan: zailtasun eta eragozpen guztiak gorabehera, oraingo pertsonal, finantza eta antolamenduetan jarraitzea dela onartu ezin litekeen gauza bakarra. Honela jarraitzeak ondorio larriak izango lituzke. Halere, elkartzainketarantzko pausoak ematea astiro gertatuko da eta psikiatriko handi eta ezindu mentalen ospitaleak itxi eta elkarte-zerbitzuak eraikitzeke joera pasa egingo da. Egoitza pribatutan oinarrituriko zainketa-eredua trintxeraturik gertatuko da. Laborerako, gizar-terko kiderik gabetuenei eskuratu ko zaien laguntzak izan lezakeen baino ekonomiko-tasun, eraginkortasun eta efikazia gutxiago izaten jarraituko du.

Audit Commission-Making a reality of community care (Radical changes Needed) 3. Kapituluaren itzulpen-moldapena, Xabier Mendigurenek egin.